

Arte Eszenikoen Pedagogia

Kurtsoa: 4

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

- Hezkuntza-teorien, ikaskuntzaren eta garapenaren psikologiaren ezagutza.
- Ezagutu eta praktikan jartzea curriculumaren diseinu- eta garapen-prozesuak, plangintza didaktikokoak eta hezkuntza-praktiketarako eta antzerki- eta eszena-animaziorako materialak egitekoak.
- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen eta antzerki-animazioko programen diseinua, garapena eta ebaluazioa bideratzen duten printzipio teoriko eta metodologikoen ezagutza, espazio, denbora eta onuradun desberdinen arabera.
- Irakaskuntza-, ikaskuntza- eta animazio-metodo eta -estiloen ezagutza, azterketa eta praktika.
- Hezkuntzaren historiaren eta antzerki-animazioaren oinarritzko alderdien ezagutza.
- Kasuen ikerketa eta jardunbide egokien azterketa.
- Hezkuntzaren eta antzerki-animazioaren gaineko ikerketa.
- Berme-politikak eta kalitate-kudeaketa.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

- Diseinuko, plangintza didaktikoko eta arte eszenikoetako hezkuntza-praktiketarako materialen prestaketako printzipio teorikoak ezagutzeko.
- Irakaskuntza-jardunbidea ikasleen maila, adin, egoera eta motibaziora egokitzeko.
- Ikasgai baten programazio didaktikoa egiteko.
- Ikasgaiaren unitate didaktikoak prestatzeko, haren edukiak eta tenporalizazioa, helburuak, eta ebaluazio-metodologia ezarriz.
- Arte eszenikoetako irakaskuntza-jardunbidera aplikatutako ikerketa-oinarriak ezagutzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

- Garapenaren psikologiaren, pedagogiaren eta hezkuntzako teoriaren oinarritzko printzipioak ezagutzea.

- Artearen bidezko heziketaren eta arte eszenikoen balio hezitzailearen teoria desberdinak ezagutzea, baita gai horren inguruko egile nagusiak eta horien ekarpen garrantzitsuenak ere.
- Horiek aplikatzea arte eszenikoetako ikasgai bateko prozesu didaktiko baten diseinuaren, garapenaren eta ebaluazioaren testuinguruan, jakineko prestakuntza-esparru batean.
- Arte eszenikoetako irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodoak eta -estiloak ezagutu, aztertu eta praktikan jartzea.
- Antzerki-animazioko oinarri teorikoak ezagutzea.
- Antzerki-animazioko partikularitasun hezigarriak, artistikoak eta kulturalak bereiztea hainbat testuingurutan: haurrentzako eta gaztetxoentzako antzerkia, antzerki komunitarioa, sektore ahulenekin hezkuntza-lana etab.
- Irakaskuntza-ikaskuntzako teknika eta baliabide desberdinak erabiltzea, metodologiak heziketa-esperientziaren egoera eta helburuetara egokituz.
- Animazio soziokulturaleko praktika espezifiko bat bezala ulertzea antzerki-animazioa.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplikatu dakizkiokeen kompetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoia, kontzeptu teorikoak asimilatzeak eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.